



### III. SUMMA ALDAPETA KANPAINA KULTURALA

2018/2019 ikasturtea

Hainbat urte badira Donostiako SUMMA-Aldapeta Ikastetxeko **IGEak eta Irakasleek** “Alberto Echeverría” Literatur Lehiaketa antolatzen dutela. Ikasleen ezagutza eta sormena sustatzea da lehiaketa horren helburua.

Deialdi honetan, berriz ere, III. Kanpaina Kulturalaren barruan kokatzen da lehiaketa, hau da, beste diziplina artistikoak: argazkilaritza, artea eta musika sustatzeko asmoaren barruan. Horregatik, ohiko Literatur Lehiaketa ez ezik, honako lehiaketa hauek ere berriz egingo ditugu:

- Argazki Rallya (aurreko edizioetan egindakoaren antzekoa).
- Marrazketa Lehiaketa.
- Musika Lehiaketa.

Aipatu lehiaketak abenduan, urtarrilean, otsailean eta martxoan zehar egingo ditugu, eta modalitate bakoitzean garaile suertatzen diren lanek sari-banaketa berean jasoko dituzte sariak.

Bide batez, hemen daukazue Literatur Lehiaketaren oinarriak, III. Summa Aldapeta Kanpaina Kulturalaren lehen lehiaketarenak hain zuzen:

### XVII. “ALBERTO ECHEVERRÍA” LITERATUR ETA BIDEO-ERRESEINEN LEHIAKETA

#### Modalitateak

1. Lehiaketak bi modalitate ditu, hurrenez hurren, **Literatur Lehiaketa eta Bideo-erresein Lehiaketa** deituko ditugunak.

#### Parte-hartzaileak

2. Ikastetxeko LHko, DBHko eta Batxilergoko ikasle GUZTIEK har dezakete parte **literatur lehiaketan**.
3. Lehen Hezkuntzan hiru sekzio banatu ditugu. Hona hemen bakoitzaren berezitasunak:
  - LHko 1. eta 2. maila.-**
    - KOMIKIArekin soilik har dezakete parte.
    - Binaka edo gehienez lau (4) partaideko taldean har dezakete parte. Irakasleak erabakiko du hori.
  - LHko 3. eta 4. maila.-**
    - Literatur lehiaketan soilik har dezakete parte (poesia, komikia eta narrazio laburra).
    - Banaka parte hartuko dute.
  - LHko 5. eta 6. maila.-**
    - Literatur lehiaketan (poesia, komikia eta narrazio laburra) eta bideo-erreseinan har dezakete parte.
    - Banaka parte hartuko dute.
4. **Bideo-erresein Lehiaketa** Ikastetxeko LHko hirugarren zikloko (5. eta 6. maila), DBHko eta Batxilergoko ikasle guztientzat dago zabalik.
5. Bi modalitateetan (Literatur Lehiaketan eta Bideo-erreseinan) parte har dezake pertsona bakoitzak.



### Literatur Lehiaketa

6. Literatur Lehiaketan, LHko 1. eta 2. mailan izan ezik, banaka hartuko dute parte partaideek.
7. Literatur Lehiaketara olerkiak, narrazio laburrak edo komikiak aurkez daitezke, eta lehiakideak libre dira lanaren generoa (lirikoa, fantastikoa, abenturazkoa, misteriozkoa, e.a.) aukeratzeko.
8. **Formatua.** – Literatur Lehiaketarako lanak DIN A4 formatuan aurkeztuko dira, eta orrialde bakar batean soilik egongo dira idatzita edo inprimatuta.
9. **Identifikazioa.** – Izenburuak bakarrik emango du lanaren berri. Izenburuaz salbu, ez da egilea nor den adieraz dezakeen xehetasunik agertuko. Aparte doan kartazal itxi batean sartuko dira egilearen izen-abizenak. Kartazal horretan, kanpoaldean, lanaren izenburua azalduko da, baita lehiatzen duen modalitatea ere. Baldintza horiek betetzen ez dituzten lanak bertan behera geratuko dira.
10. **Nori eman.** – Idatziarekin lotutako ikasgaia ematen duen irakasleren bati emango zaio lana.
11. **Digitalizazioa.** – Irakasleek hautatutako lanak ikasleek bidaliko dituzte (aurrez, irakasleen abisua jasota) helbide honetara: [ige@summa-aldapeta.es](mailto:ige@summa-aldapeta.es). Eskuz idatziak badira, eskaneatuta bidaliko dituzte. Lanak anonimatuari mantenduko dira.

### Bideo-erreseinen Lehiaketa

12. Banaka hartuko da parte Bideo-erreseina Lehiaketan.
13. Originalak eta argitaratu gabeak izango dira bideoak.
14. Gutxienez bi minutu eta erdi iraungo du, eta, gehienez, hiru minutu eta erdi.
- 15.– Lanak izen honekin aurkeztuko dira: *Reseñas\_AlbertoEcheverría\_liburuaren izenburua*.
- 16.– Bideoan liburuaren datuak agertuko dira: liburuaren izenburua, egilearen izena, argitalpen-urtea, argitaletxea eta orrialde-kopurua.
17. Bideoa eta ikaslearen datuak (izen-abizenak eta gela) bidaliko dira helbide honetara: [ige@summa-aldapeta.es](mailto:ige@summa-aldapeta.es).

### Bi modalitateentzako oinarri komunak

18. **Hizkuntza.** – Lanak **euskaraz** ala **gaztelaniaz** aurkez daitezke.
19. **Onarpen-epea.** – Hona hemen **lanak jasotzeko** epea: **2018ko abenduaren 17tik –2019ko otsailaren 17ra**.
20. **Lehen aukeraketa.** – Lehen fasea igarotzeko, lan batek, kalitate literario edo dokumental nabaria izateaz gain, baldintza hauek ere bete behar ditu derrigor:
  - a) Garbitasuna lanaren aurkezpenean.
  - b) Eskuizkribuak badira, kaligrafia zaindua, eta, bideo-erreseinak badira, kalitate egokia.
  - c) Ortografia eta hizkera onargarritik gorakoa.



**21. Epaimahaia.** – Irakasleek izendatuko dituzte modalitateen epaimahaikideak, eta euren epaia apelaezina izango da.

**22. Sariak.** -

- Literatur sailean ziklo bakoitzetik (LHko 1. zikloa, LHko 2. zikloa, LHko 3. zikloa, DBHko 1. zikloa, DBHko 2. zikloa eta Batxilergoa), azpigenero bakoitzetik (narrazio laburra, poesia eta komikia) eta hizkuntza bakoitzetik (euskara eta gaztelania) lan bana hautatuko da garaile moduan. Horrez gain, aurkeztutako edozein lanaren aipamen berezia egin dezake epaimahaiak. Aurkeztutako lanek eskatutako kalitate-mailarik ez badute, edozein sari gera daiteke eman gabe.
- Literatur Lehiaketan eta Bideo-erreseinan garaile suertatzen den bakoitzari **Diploma** eta **50 euroko** (Lehen Hezkuntza) edo **100 euroko** (DBH eta Batxilergoa) txartela emango zaio.

**23. Parte-hartzaileen balorazio akademikoa.** –Baldin eta oinarri hauetako 20. puntuko baldintzak betetzen badira, lehiaketan parte-hartzea elementu bat izan daiteke lanarekin lotura duen ikasgaiaren balorazio akademikoa egiteko orduan.

**24. Epaia argitara ematea.** - **2019ko apirilean** emango da argitara bi modalitateetako irabazleen zerrenda. Irabazle suertatzen diren lanak ikastetxeko webgunean plazaratuko dira.

**25. Oinarriak onartzea.** – Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar. Oinarrietan aurreikusi gabeko arazoak dagokion epaimahaiak konponduko ditu.

❖ **LITERATUR LEHIAKETA:**

• **Poesia:**

- Lehiakideek aukeratuko dute tonua eta gaia (oinarrizko errespetu baldintzak beteta beti), baita errima eta metroa ere.
- Luzera ere nahiko askea da: gutxienez 10 lerro izango ditu eta gehienez 25.
- Batez ere, olerkiek adierazten duten sakontasuna eta zintzotasuna hartuko dira kontuan.

• **Narrazio laburra:**

- Tonua eta gaiari dagokienez, poesiaren arau berberak egongo dira indarrean narrazioarentzako ere.
- Gehienez, bost orrialde izango ditu lanak.
- Besteak beste, originaltasuna, sormena eta interesa mantentzea hartuko dira kontuan, baita hizkuntzaren erabilera egokia ere.

• **Komikia:**

- Narrazio bisualaren azpigeneroa ere lehiaketaren parte da.
- Narrazio laburraren arau berberak egongo dira indarrean komikiarentzako.

Bi modalitateetako lanak argitaragabeak eta beste lehiaketetan saririk jaso gabeak izan behar dute.

**Anima zaituz!**